

DROGA-MENDEKOTASUNAK ERE GENEROA BADUELAKO...

Gaur egun, droga-mendekotasunen arloa, gizarteko beste hainbat arloren antzera, generoaren perspektiba kontutan hartzen ez badugu ezingo dugu bere horretan aztertu eta ulertu. Zoritxarrez, droga-mendekotasunean ere, beste hainbat arlotan bezala, emakume eta gizonen droga kontsumoak tauletan banaturik agertzearekin eta hizkuntza txukuna erabiltzearekin generoaren ikuspuntua aztertutzat ematen da.

Droga-mendekotasunen gaia bere osotasunean aztertu nahi badugu beharrezkoa izango dugu generoaren perspektiba matematiko-hizkuntzalariatik salto bat egitea. Droga-mendekotasunak generoa duela diogunean ez gara ari genero bakoitzak kontsumitzen duen sustantziak, kontsumo honen nolakotasunaz edo gizon-emakumeen artean kontsumitzeko dauden arrazoi ñimiño batzuen azterketaz. Aztertu ditzagun ezberdintasun horien zergatiak eta emakumeak gizartean egoteko eta jarduteko modu derrigortuak kontsumo horietan duen eragina.

Droga-mendekotasunak generoa duela diogunean ez gara zeinek kontsumitzen duen bata gehiago eta zeinek bestea gutxiago jakin nahian ari. Droga-mendekotasunak generoa duela diogunean, emakumeak kontsumo desegoki eta arriskutsuak izatera daramaten faktoreez edo zergatiaz ari gara. Hala nola, sistema patriarkal honek emakumeoi inposatzen dizkigun rola barneratzera daramaten faktoreez ari gara. Inposatu diguten emakume-bikaina izate honek (ama, maitagarria, maitale ona, ulerkorra, emaztea, langilea, fina, txukuna... eta gainera arrakastatsua) askotan kontsumo desegokiak izatera bultzatzen gaitu. Eskatzen den emakume hori izateagatik eta pertsona izateari uzteagatik sortutako bizi-mina arintzeko kontsumitzen denean. Berdintasuna ere droga kontsumitzeko moduen bidez lortu nahi dugula dirudi, gizonak droga kontsumitzeko duten jokabide-eredua jarraituz eta droga askorekin haien parean jarriaz.

Gainera, emakumea sustantzia batez edo gehiagoren dependentzia izatera daramaten faktore hauek guztiak, ondorio argi batzuk dituzte. Bai gionezkoek eta baita emakumezkoek ere osasun arazoak, egonezina, bazterketa, bakardadea, arazo pertsonal eta psikologiakoak... izaten dituzte. Baina ondorio horiek guztiak bikoiztu egiten dira emakumeen kasuan, bi haustura egiten dabilelako, hala nola, drogak kontsumitzen dabilen emakumea delako -sustantzia ilegalen kasuan zer esanik ez- eta emakume izateari zor zaizkion rola betetzen ez dituelako edota luzera beteko ez dituelako. Emakumea eta kontsumitzailea batera ezina delako inposatu den "emakume izatean" jarduteko, hala nola, amatasuna, seme-alaben heziketa-babesa, gorputzaren zainketa, bere inguruko erresponsabilitatea eta senideen zaintzaile-babeslearen betebeharra aurrera eramateko. Haustura bikoitz honetan aritzeagatik bi zigor jasoko ditu, bazterketa kontsumitzailea izateagatik eta eraso emakume izateagatik, gainontzeko emakumeengandik baztertua eta eraso sexistak eta sexualak jasateko aukera handiarekin.



Osasun arloan ere, droga-mendekotasun arazoak dituzten emakumeek ez dute behar bezalako arreta jasotzen. Emakumeak jasotzen dituzte desintoxikazio tratamenduak, baina gutxi dira bertara hurbiltzen direnak (gizonezkoekin alderatuz hirutatik bat), bizi duten erruduntasun sentimenduaren ondorioz lotsa dutelako. Desintoxikazio tratamenduak gizonezkoen ezaugarrietan oinarritzen dira, eta ondorioz hauen beharretara egokitzen. Emakumeen ezaugarritara egokitutako tratamenduetan arreta gutxi jarri da. Osasunaren eta medikuntzaren beste arlo batzuetan bezala emakumearen gorputza eta bere osasunean dagoen ñabardura bakarria amatasunaren gaitasunera mugatzen da. Honen ondorioz sortzen den kezka bakarria kontsumo horrek amatasunean sortu ditzakeen arazoetara mugatzen da. Ez dago emakumearen gorputzik, osasun fisikorik eta mentalik, eredu unibertsala gizonezkoan oinarritzen da

Emakumearen gorputza, osasun fisikoa eta mentala bere horretan ez da existitzen, gizonaren inguruan eraiki den eredu unibertsalaren baitan eraikia baitago, izen propiorik gabe.

Horregatik, droga-mendekotasunen fenomenoan generoaren azterketa txertatzea oinarritzkoa dela aldarrikatzen dugu, prebentzio politika zuzena, egokia eta eraginkorra izateko. Faktore kulturalak, faktore sozialak eta rola ikertu behar ditugu baita ere, hauek ere kontsumo desegokiekin hartu-eman dutelako.

Jaio aurretik eta jaio ondoren sexuaren eta asignatutako generoaren arabera egiten ditugun ezberdintasun sozialez jabetu eta errekonozitu beharrean gaude. Asignazio horrek osasun eta droga-mendekotasunen hainbat arloetan gizonengandik ezberdin egiteaz gain, gutxietsiak, zapalduak eta ezkutatuak egotea garamatzalako.

Gure esparrutik droga-mendekotasunen irakurketa feministatik abiatzea beharrezkoa ikusten dugu. Emakume eta gizon ereditik abiatu baino, pertsonen osaturiko gizartetik abiatuz, pausu batzuk emango dira emakumeok jasaten ditugun droga-mendekotasun askoren zergatiei eta ondorioei aurre egiteko. Eta horregatik, droga-mendekotasunak ere generoa duelako, Urriaren 17an Euskal Herriko Emakumeen Plataformak Emakumeen Mundu Martxaren bukaerarako antolatu dituen ekimenetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.



**ASKAGINTZAREN
EMAKUMEEN SAILA.**

2005eko urrian.

